

AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



Oïlarra eta saguzarra

Oïllar eder eta artoa eta saguzar itxusia Afrika'n bizi ziran.

Oïllarrak goiz guztietan abesten eban bere kukurrukua.

Saguzarra teillatuko odipean bizi zan eta bere sagu-musturra alde guztietara zuzentzen eban, oïllar artoa ez ikustearren.

—Benetan ederra da izan be oïllarra! —esaten eban negarrez— ni, ostera, baltza ta motza naz.

Asieran bekaitza zana, gero gorroto sakon eta anker biurtu zan:

—Etorriko al da piztizarren bat, luma, gangar eta guzti zu oïllar madarikatu ori jateko!

Baiña oillarrak goizero kukurruku egiten jarraitu eta orrelan saguzarraren bekaitza aunditu egiten eben. Goiz baten saguzarrak, gorrotoz estanda egiteko moduan, esan eutson:

—Ba-dakizu zure abotsa ain txarra ez dana? Gura dozu gure etxerra etorri gaur bazkaltzeko? Beti poztuten nau norki ospetsuak etxean eukiteak!

—Bai pozik be, —erantzun eban oillarrak!

Oilarra aldu zanean ontzi aundi bat ikusi eban irakiten.

—Zertarako gura dozu ur bero guzti ori?

—Ori da jatekoa —esan eban saguzarrak. Baiña esku-barruaz bekokia jo eta gainerratu eban:

—Gatza aztu jat, oillar lagun, geratu zaite sutondoan eta ez dakiola peitu sugarrria ontziari, ni gatza eroatera azokara noan artean. Bost minutu barru nator!

Gesia baiño ariñago joan zan eta inguruari bira batzuk egin eta kezuloaren gainean geratu eta astiro jatsiten asia zan.

—Ai ene! Piztitzarrak ez zaitu jan baiña saguzarrak egozi egingo zaitu.

Oillara uste bagerik arrapatzea eta ur bero ontzian sartzea nai eban, baiña

ber-bertan sua berbiztu zan eta saguzarra arrapau eta onek orekea galdu eban. Ainbeste keren artean eta oiñak erreta, sasguzarra urbero-ontzira jausi eta il egin zan.

Oillarrak ikusi eban zelako arriskuan egon zan eta Egilleari eskerrak emon eutsozan salbau zalako. Arrezkero, kukurruku bakoitxaren ostean, isil antzean esaten dau:

—Daukonagaz pozik ez dagoana gorrotoz eta itxarogabez ilten da

† OLAZAR´tar Martin´ek